

2. HE: BIRZIKLATZE PLUS (+) (2025/60/15/81)

Ekitaldiaren deskribapena

Arloa: Prestakuntza - Hizkuntza-prestakuntza

Modalitatea: Aurrez aurrekoa

Egutegia:

Ikastaroaren egunak: azaroaren 3a, 5a, 10a, 12a, 17a, 19a, 24a, 26a eta abenduaren 1a, 3a

Ordutegia: 09:00 - 11:00

Iraupena: 20 ordu

Izena emateko epea: 2025eko urtarrilaren 2tik urriaren 16ra: Administrazio Orokorra (*)
2025eko urtarrilaren 2tik urriaren 22ra: beste administrazio batzuk

(*)Oniritzi epea: 2025eko urriaren 17tik 22ra

Baja emateko azken eguna: 2025eko azaroaren 2a

Hizkuntza: euskara

Baldintzak: derrigorrezkoa da B2 maila egiaztatuta izatea eta **2. HE: birziklatze ikastaroa** eginda.

Irakasleak: INSTITUTO LABAYRU IKASTEGIA

Helburuak

Helburu orokorrak

Langileek hizkuntza gehiago eta segurtasunez erabil dezaten, euskararen gaineko ezagutza eta esperientzia indartzea.

Helburu orokorrak

Laguntza eskaintzea eguneroko jardunean hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko.

Langileei euskara eguneroko lanean gehiago eta hobeto erabil dezaten baliabideak ematea.

Testuak hobeto josteko mekanismoak erakustea.

Erdarakada eta estilo kontuez jabetu eta euskara jatorrean adierazteko aukerak eskaintzea.

Gutunaren, e-mailaren eta oharraren ezaugarriak bereizten ikastea.

Erregistro formala eta informala bereizten eta desberdin erabiltzen ikastea.

Idatzia zein ahozkoa praktikatu eta segurtasuna lortzen laguntzea.

Konpetentziak

Ikasleak prestakuntza-ekintza amaitzean jakingo du:

Zuzenago idazten eta hitz egiten.

Lexiko zuzenagoa erabiltzen.

Irakurgaiak eta entzungaiak, oro har, hobeto ulertzen.

Programa

Gramatika

Euskaltzaindiaren zenbait arau.

Zalantza gramatikalak.

Ortografia.

Aditza.

Idazmena

Gutunaren, e-mailaren eta oharraren ezaugarri nagusiak eta ereduak.

Testu egokiak, lotuak eta zuzenak egiteko baliabideak.

Erdarakadak

Erdal gerundioa.
Estilo kontuak.

Mintzamena

Elkarriketak eta azalpenak.

Irakurmena eta entzumena

Berriak, kronikak eta artikulak.

Ikastaroaren planteamendua B2 mailako ikuspuntu orokorretik bideratuta badago ere, administrazioko jardunarekin zerikusia duten idazkiak, gaiak edota ariketak txertatu eta landuko dira.

Metodologia

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

Ebaluazioa

Ebaluazioa

Ikastaroan betetako eginkizunak hartuko dira kontuan GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

Aprobetxamendua

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatu diren ariketak egin izana.

Ikastaroaren balorazioa

Ikasleek astebetetze inkesta beteko dute.
Irakasleek balorazio-inkesta osatuko dute.

Oharrak

Baldintzak

Beharrezkoa da posta elektronikoko kontu korporatibo bat izatea ikastaroa egingo duen pertsona identifikatzeko. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun printzipioa betetzeko.

Harremanetarako

ikasivap@ivap.eus

Ziurtagiri digitala

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan, *IVAPekiko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartuta.

Informazio zehatza

Gela:

10

Lekuaren xehetasun gehiago:

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN 1 - VITORIA-GASTEIZ, PK: 01010

Izen ematea

Prezioa

195,30

Prezio publikoen agindua

Agindua, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

Agindua, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.).

Jarraibideak

Eusko Jaurlaritzako Sail edo haren Erakunde Autonomoetako langilea bazara:

IVAPeko web orriko "IVAPekiko izapideak" izeneko atalera jo eta berariazko ikastaroetan izena emateko plataforma irekiko zaizu. Edo hona hemen esteka zuzena: <https://www.ivap.euskadi.eus/webivap00-a5app2/eu/aa06alvapInternetWar?locale=eu> XLNET-en bidez edo BAKQ erabilita identifikatu eta gero, aurrematrikula bideratzeko aukera izango duzu.

Toki eta Foru administrazioetako langilea bazara:

Zure erakundean ikastaroak kudeatzen dituen solaskidearekin harremanetan jarri zure eskaria bideratzeko. Berak Solaskidegune plataformaren bitartez zure eskaera helaraziko digu.